

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

328/2019 Ebazpena, otsailaren 8koa, zeinaren bidez onesten baitira salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko 2019ko urtarrilaren 25ean Arabako Lurralde Historikoan egindako probaren behin betiko emaitzak

Azaroaren 28ko 2351/2018 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA), salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duena, eskuratzeko xedez Arabako Lurralde Historikoan 2019an egitea aurreikusitako probetarako, eta proba horiek arautzen zituzten oinarriak argitaratu ziren.

Aipatutako ebazpenaren I. eranskinaren lehen oinarriak xedatzen du 2019an sei deialdi egingo direla, eta lehenengo deialdiko azterketa urtarrilaren 25ean, ostiralarekin, egingo zela. Proba hori araututa zegoen bezala egin zen.

Zortzigarren oinarriaren arabera, ariketak kalifikatu ondoren, epaimahaiak www.araba.eus web orrian argitaratu behar ditu behin-behineko emaitzak, eta bost egun balioduneko epea hasiko da, interesdunek alegazioak egin ditzaten. Behin ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak onartu behar ditu Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendariak, ALHAOn argitaratuko den ebazpenaren bidez.

Behin-behineko emaitzak 2019ko urtarrilaren 28an argitaratu ziren web orrian, eta haien aurka ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, behin betikotzat jo behar dira.

Horregatik, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretuak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duenak, eta azaroaren 28ko 2351/2018 Ebazpenak aitortzen dizkidaten ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea salgaiak eta bidaiariak errepide bidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko probaren behin betiko emaitzak, zeinak eranskinean jaso baitira. Azterketa hori 2019ko urtarrilaren 25ean egin zen, Arabako Lurralde Historikoan.

Bigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, eta behin betiko emaitzen zerrenda www.araba.eus web orrian.

Ebazpen honek ez du agortzen administrazio bidea eta, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 112.1 eta 121. artikuluetan ezarritakoaren arabera, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERREDA SALGAIK

NAN	EMAITZA
16636668D	Gai
16641354A	Gai
44678065J	Ez Gai
58026375C	Ez Gai
58032541E	Ez Gai
71043409C	Gai
X2333881W	Ez Gai
X3005052X	Ez Gai
X6003711K	Ez Aurkeztua
X7130815X	Ez Gai
X9864950C	Ez Gai

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERREDA BIDAIRIAK

NAN	EMAITZA
16281998E	Gai
16287773R	Gai
16294185L	Gai
44677553F	Gai
44682351K	Gai
44689130S	Gai
72719648L	Gai
72726441G	Gai
72729625Z	Gai
72739719B	Gai
72740781S	Gai
72755652M	Gai
72825481Y	Gai
72826292N	Gai
72831923P	Gai
73008916Q	Gai
X6376976L	Gai
X8403792Y	Gai